



Kirolerako aukerak EBn Erasmus+ Programa

Kontuan hartu beharrekoa:

Erasmus+ Programako kirol-ardatzaren deialdien egutegia:

http://ec.europa.eu/sport/calls/index_en.htm

GARRANTZITSUA: Eskaerak aurkeztu ahal izateko, nahitaezkoa da, proiektuaren bazkide nahiz lider izateko, erregistratzea eta Parte-hartzailearen Identifikazio Kodea (PIC) edukitzea:

Eskaera honetan datza: proposamenean parte hartzen duten pertsona guztiak erregistratzea, eskaera elektronikoa betetzea, eskatzen diren eranskinak gehituz, eta hura bidaltzea. Europako finantzaketa jaso nahi duten antolakundeek (lider nahiz bazkide gisa) erregistro-zenbaki bat izan behar dute; beraz, finantzaketa jasotzeko aukera izateko beharrezkoa da Europar Batzordearen erregistroan alta hartzea.

Informazio gehiago nahi izanez gero:

<http://ec.europa.eu/education/participants/portal/desktop/en/home.html>

Informazio gehiago nahi izanez gero:

- ✓ Erasmus+ 2015 Programaren gida:

http://ec.europa.eu/programmes/erasmus-plus/documents/erasmus-plus-programme-guide_en.pdf

- ✓ Education, Audiovisual and Culture Executive Agency (EACEA) - Agentzia betearazlea:

http://eacea.ec.europa.eu/erasmus-plus_en

Dokumentu honen xedea da Europako finantzaketaren planteamendua eta kirolaren ardatzari eskaintzen dizkion aukerak aurkeztea, ikuspegi praktiko batetik. Alde batetik, azalduko da zer jarduera nagusitan parte har daitekeen eta zein diren jarduera horien ezaugarriak, eta, bestetik, Erasmus+ 2014-2020 Programak jarduera bakoitzari esleitzen dion finantzaketa zehatza, eskema moduko koadro baten bitartez.





LEGE-TESTUINGURUA / EUROPAREN ESKUMENAK

Lisboako Tratuaren 165. eta 166. artikuluek arautzen dituzte hezkuntzaren, lanbide-prestakuntzaren, gazteriaren eta kirolaren ardatzak. Artikulu horietan azpimarratzen da Batasunak beti garatuko duela kirolaren europar dimentsioa, kirol-lehiaketetan ekitatea eta irekitasuna eta kirol-arduradunen artean lankidetzak sustatuz, eta kirolarien segurtasun fisiko eta morala babestuz, batez ere pertsona gazteenena.

ERASMUS+ PROGRAMA

Europar Batasunak kirola sustatzeko duen konpromisoa garbi ageri da Erasmus+ 2014-2020 Programa berrian. Izan ere, ohiko helburuekin batera –prestakuntza, hezkuntza eta gazteria– kirolaren arloa ere jaso du. Era berean, “Kirol Ekintza” egitasmoaren baitan, kirolaren europar dimentsioa garatzen laguntzeko proiektu eta ekimen gehiago sortzea bultzatu nahi da, kirol-antolakundeen arteko lankidetzan eta harmonizazioan sakonduz. Helburu horrekin, 265.941.000 € bideratu dira datozen 7 urteetarako, hau da, urteko 38 milioiko aurrekontua. Urtean bi deialdi egitea planteatu da.

Europako Batzordeak 2014-2020 aldirako kirol-ardatzari begira egin duen **Erasmus+ Programaren lan-programatik**, kirol-lankidetzaren esparruko jarduera nagusi hauek bultzatu ditu programak:

1. **LANKIDETZA-ELKARTEAK BULTZATZEA (COLLABORATIVE PARTNERSHIPS)**

Deialdi honetan, lankidetzak-ekarteak izango dira Erasmus+ programako kirol-ardatza garatzeko tresna garrantzitsuena, eta finantzaketa eskainiko da **jarduera** hauetarako:

- ✓ Gako-bazkideen arteko lan-sareak eratzea.
- ✓ Jardunbide egokiak identifikatu eta partekatzea.
- ✓ Politikak sortzera zuzendutako jarraibideak, gomendioak, jokabide-kodeak eta bestelako dokumentuak garatu eta gauzatzea.
- ✓ Prestakuntza- eta hezkuntza-moduluak garatu eta gauzatzea.



**LEHENDAKARITZA**

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza

PRESIDENCIA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak.
Delegación de Euskadi para la Unión Europea

- ✓ Jarduera horietarako giltzarri diren datuak biltzea.

Espero diren emaitzak:

- ✓ Programan dauden zenbait herrialdetako kirol-antolakundeek parte hartzea, sareak sendotzeko.
- ✓ Jardunbide egokiak partekatzeko lana hobetzea, aurrez aipatu helburuei dagokienez.
- ✓ Programan dauden herrialdeetan kirol-jardueraren eta jarduera fisikoaren inguruko ezagutza eta kontzientzia areagotzea.

Finantzaketa lortzeko aukera izan nahi duten lankidetzak-elkartek lan-helburu hauek betetzea xede duten proiektuak taxutu beharko dituzte:

- a. Dopinari oinarrizko mailan aurre egitea, batez ere kirol amateurraren eta fitness-aren esparruetan.
- b. Partidetan azpijokoan ibili edo iruzur egitearen aurkako prebentzioa eta sentsibilizazioa bultzatzea.
- c. Kirolean borondatezko jarduerak sustatzea eta indarkeriari eta arrazakeriari aurka egiteko ikuspegi berritzaileak bultzatzea.
- d. EBk kirolaren gobernantza egokiaren inguruan dituen printzipioak ezar daitezen bultzatzea.
- e. Atleten ikasketak eta kirola bateratzeari buruzko EBren jarraibideak ezar daitezen bultzatzea.
- f. Genero- eta aukera-berdintasuna sustatzen duten EBren estrategiak ezar daitezen bultzatzea.

Eskatzaile hautagarriak:

Laguntza baten onuraduna kirolaren eta jarduera fisikoaren arloko erakunde publiko bat edo





irabazi asmorik gabeko erakunde bat izan beharko da. Lankidetzeta-elkarteak Programan parte hartzen duten bost herrialdetako gutxienez bost antolakundek osatu beharko dituzte.

Adibide gisa, antolakunde horiek izan daitezke honakoak (ez da zerrenda osoa):

- Kirol-arloan diharduten eskualdeko edo tokiko erakunde publikoak.
- Batzorde Nazional Olinpiko bat edo Kirol Konfederazio Nazional bat.
- Herrialde mailako kiroletako ligak.
- Kirol-klubak.
- Atletak ordezkatzen dituzten antolakunde edo elkarteak.
- Kirol-arloko profesionalak edo boluntarioak –managerrak eta abar– ordezkatzen dituzten antolakunde edo elkarteak.
- Jarduera fisikoa sustatzen aktiboki diharduten antolakundeak.

Proiektuaren iraupena: BI DEIALDI

- 1) Urtearen lehenengo txandan aurkezten diren lankidetzeta-elkarteen proiektuetarako (2015eko Kirol Astearekin lotuak): **18 hilabete**.
- 2) Urtearen bigarren txandan aurkezten diren proiektuetarako (2015eko Kirol Astearekin loturarik ez dutenak): **12 eta 36 hilabete bitarte**. Deialdia aplikatzeko unean zehaztu beharko da iraupena.

Hautagaitzak non aurkeztu: Hezkuntza, Ikus-entzunezko eta Kulturaren arloko Agentzia Betearazlea (EACEA) Bruselan: http://eacea.ec.europa.eu/index_en.php

Europar Hezkuntza Programetarako Erakunde Autonomiaduna (OAPEE):
<http://www.oapee.es/oapee/inicio/pap/erasmus.htm>

Epeak:

- **2015eko Kirolaren Europako Astearekin lotutako** proiektuei dagokienez, eskaera





LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza

PRESIDENCIA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak.
Delegación de Euskadi para la Unión Europea

urtarrilaren 22a baino lehen (12:00etarako, eguerdia Bruselako orduan) aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, urte bereko apirilaren 1a eta irailaren 1a bitarte hasten diren proiektuetarako.

- **2015eko Kirolaren Europako Astearekin loturarik ez duten** proiektuei dagokienez, eskaera **maiatzaren 14a baino lehen (12:00etarako, eguerdia Bruselako orduan)** aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, datorren urteko urtarrilaren 1ean hasten diren proiektuetarako.

Hautaketarako irizpideak:

| | |
|--|---|
| <p>Proiektuaren garrantzia (gehienez 30 puntu)</p> | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Proposamenaren garrantzia <ul style="list-style-type: none"> - Europako politiken helburuak kirolaren arloan. - Ekintza honen helburuak eta lehentasunak (ikus ekintza hau: “we are the aims of a collaborative partnership”). ▪ Baldintza hauek bete beharko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Proposamena beharizanen analisi egiazko eta egoki batean oinarrituta egotea. - Helburuak argi eta garbi zehaztuta egotea, parte hartzen duten antolakundeei begira errealistak eta garrantzitsuak diren alderdiei erreparatu. - Proposamenak berritzailea izan behar du eta EB mailan balio erantsia eskaini behar du. |
| <p>Proiektuaren eta haren ezarpenaren diseinuaren kalitatea (gehienez 20 puntu)</p> | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lan-programa argia, osoa eta kalitatezkoa izatea, beharrezkoak diren faseak jasoz: prestakuntza, ezarpena, jarraipena, ebaluazioa eta zabalkundea. ▪ Proiektuaren helburuak, metodologia, jarduerak eta proposatutako aurrekontua elkarrekin bat etortzea. ▪ Proposatutako metodologiaren kalitatea eta bideragarritasuna. ▪ Kudeaketa-akordioak egotea eta horien kalitatea (antolaketa, ardurak eta zeregin errealistak eta egoki esleituak). ▪ Kalitatearen kontrolerako neurriak egotea eta horien garrantzia, ziurtatzeko proiektua kalitatez, epearen barruan eta adostutako aurrekontuaz gauzatuko dela. ▪ Proiektuko kostuen efizientzia, eta baliabideak jarduera bakoitzari zuzen esleitzea. |





| | |
|--|--|
| <p>Lantaldearen eta lankidetzak-akordioaren kalitatea (gehienez 20 puntu)</p> | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Baldintza hauek bete beharko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Proiektuan hainbat arlotako adituak egotea, hala nola kirol-politiketan edo kirolaren praktikan (entrenamendua, lehiaketak eta abar) - Lantaldean parte hartuko duten antolakundeak osagarriak izango dira eta behar besteko eskarmentua izango dute, proiektuak arlo guztietan arrakasta izan dezan. ▪ Bazkide den herrialde bateko erakunde parte-hartzaile baten inplikazioak proiektuari funtsezko balio erantsia ematea (baldintza hori bete ezean, proiektua ez da hautagarria izango). |
| <p>Inpaktua eta zabalkundeak (gehienez 30 puntu)</p> | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Proiektuaren emaitzak ebaluatzeko neurrien kalitatea. ▪ Proiektuak izan dezakeen inpaktua: <ul style="list-style-type: none"> - parte hartzen duten pertsona eta antolakundeetan, proiektua gauzatu bitartean eta ondoren, - zuzenean parte hartzen duten pertsona eta antolakundeetatik kanpo, toki, eskualde, herrialde eta/edo Europa mailan. ▪ Zabalkunde-planaren kalitatea. ▪ Proiektuaren iraunkortasuna ziurtatuko duten planen kalitatea: behin Europako finantzaketa erabili ondoren, inpaktua izaten eta emaitzak ematen jarraitzeko duen ahalmena. |

Finantzaketarako hautagarria izan ahal izateko, gutxienezko puntuazioa 60 puntu izango da, eta atal bakoitzean gutxienez puntuen erdiak lortu beharko dira (adibidez, 15 puntu, proiektuaren garrantziari buruzko atalean).

Finantzaketarako arauak:

Kostu hautagarrietan, jarduera-kostuak: proiektuaren jarduera osagarriak gauzatzeari zuzenean aplikagarriak dituen kostuak; besteak beste, zuzeneko kostu hautagarriak atal hauetan: langileak, bidaiak eta dietak, ekipamendua, azpikontratazioa, kontsumigarriak eta hornidurak, zergak eta karguak eta bestelako kostuak. Jarduera-kostu horietan, gehieneko diru-laguntza 500.000 euro izango da; gehienez ere, kostu hautagarrien guztizkoaren %80.



**Aurrekontuaren banaketa:**

- ✓ Aurrekontuaren %50 helburu hauek dituzten proiektuetara bideratuko da: Atleten Karrera Duala sustatzea eta genero-berdintasuna sustatzea xede duten EBren jarraibideak ezar daitezen bultzatzea.
- ✓ Aurrekontuaren gainerako %50a aipatutako beste helburuetara bideratuko da.

Dirua gastuak egiten badira soilik itzuliko da. EBren gehieneko kofinantzaketa %80 izango da.

2. IRABAZI ASMORIK GABEKO EUROPAKO EKITALDIAK (NOT FOR PROFIT EUROPEAN SPORT EVENTS)

Deialdi honetan, diru-laguntzak emango zaizkie ekitaldi bat prestatzeaz, antolatzeaz eta haren jarraipena egiteaz arduratzen diren banako antolakundeei. Deialdia herrialdez gaindikoa da, hain zuzen, parte hartzen duten kirol-arloko profesionalak Programa indarrean dagoen 12 herrialdeetakoak izan behar dutelako, gutxienez. Finantzaketa lortzeko asmoa duten proiektuetan **jarduera** hauek jaso beharko dira:

- ✓ Antolaketa- eta prestakuntza-jarduerak atleta, entrenatzaile, antolatzaile eta boluntarioentzat, ekitaldia baino lehenago.
- ✓ Ekitaldiaren antolaketa.
- ✓ Kirol-ekitaldiaren barruan bestelako jarduera batzuk antolatzea, hala nola konferentziak eta mintegiak.
- ✓ Ebaluazioak, etorkizuneko planak eta abar egitea.

Irabazi asmorik gabeko kirol-ekitaldi horien helburuak honakoak izango dira:



**LEHENDAKARITZA**

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza

PRESIDENCIA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak.
Delegación de Euskadi para la Unión Europea

- Kirol-arloan gizarteratzeari eta aukera-berdintasunari buruzko EBren estrategiak ezar daitezzen bultzatzea; bereziki, EBren genero-berdintasunerako estrategia eta ezgaitasunaren inguruko estrategia.
- EBren jarduera fisikoari buruzko jarraibideak ezar daitezzen bultzatzea, kirolean eta jarduera fisikoan parte-hartzea sustatzeko.

Espero diren emaitzak: Gizarteratzea, aukera-berdintasuna eta jarduera fisiko osasungarria bultzatzeko ekitaldien oihartzuna eta horien inguruko kontzientzia areagotzea.

Eskatzaile hautagarriak:

Programako kide den herrialde batean egoitza duen kirol-arloko edozein antolakunde publiko edo irabazi asmorik gabeko edozein erakunde; esaterako, toki, eskualde, herrialde, Europa edo nazioarte mailako kirol-antolakunde bat.

Parte-hartzaileen profila: BI DEIALDI

- **2015eko Kirolaren Europako Astearekin lotutako irabazi asmorik gabeko Europako kirol-ekitaldietarako:**

Herrialde batean antolatutako Europa mailako ekitaldi batek Programa abian dagoen 3 herrialdetako parte-hartzaileak bildu behar ditu gutxienez, edo ekitaldiak aldi berean antolatu beharko dira 3 herrialdetan gutxienez.

- **2015eko Kirolaren Europako Astearekin loturarik ez duten irabazi asmorik gabeko Europako kirol-ekitaldietarako:**

Herrialde batean antolatutako Europa mailako ekitaldi batek Programa abian dagoen 12 herrialdetako parte-hartzaileak bildu behar ditu gutxienez; edo, bestela, ekitaldiak aldi berean antolatu beharko dira Programa abian dagoen zenbait herrialdetan, betiere gutxienez 12 herrialdetako parte-hartzaileak bilduz. Parte-hartzaileei dagokien baldintza hori bete den ala ez egiaztatzeko, ekitaldi guztiak hartuko dira kontuan.

Proiektuaren iraupena:

Urtebete gehienez (proiektuaren prestakuntzatik hasi eta jarraipena burutu arte).



**Ekitaldietarako datak:**

2015eko Kirolaren Europako Astearekin lotutako irabazi asmorik gabeko Europako kirol-ekitaldietarako: 2015eko irailaren 7a eta 30a bitarte egin beharko da ekitaldia.

2015eko Kirolaren Europako Astearekin loturirik ez duten irabazi asmorik gabeko Europako kirol-ekitaldietarako: 2016an egin beharko da ekitaldia.

Hautagitzak noiz eta non aurkeztu:

Hezkuntza, Ikus-entzunezko eta Kulturaren arloko Agentzia Betearazlea (EACEA) Bruselan:

http://eacea.ec.europa.eu/index_en.php

Europar Hezkuntza Programetarako Erakunde Autonomiaduna (OAPPE):

<http://www.oapee.es/oapee/inicio/pap/erasmus.htm>

Epeak:

- **2015eko Kirolaren Europako Astearen zehar** antolatutako irabazi asmorik gabeko ekitaldiei dagokienez, eskaera **2015eko urtarrilaren 22a baino lehen (12:00etarako, eguerdia Bruselako orduan)** aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, urte bereko maiatzaren 1ean hasten diren proiektuetarako.
- **2015eko Kirolaren Europako Astearen kanpo** proiektuei dagokienez, eskaera **2015eko maiatzaren 14a baino lehen (12:00etarako, eguerdia Bruselako orduan)** aurkeztu beharko dute parte-hartzaileek, urte bereko azaroaren 1ean hasten diren proiektuetarako.

Hautaketarako irizpideak:



| | |
|--|---|
| <p>Proiektuaren garrantzia (gehienez 30 puntu)</p> | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Proposamenaren garrantzia <ul style="list-style-type: none"> - Europako politiken helburuak kirolaren arloan. - Ekintza honen helburuak eta lehentasunak (ikus ekintza hau: “we are the aims of a collaborative partnership”). ▪ Baldintza hauek bete beharko dira: <ul style="list-style-type: none"> - Proposamena beharrezkoaren analisi egiazko eta egoki batean oinarrituta egotea. - Helburuak argi eta garbi zehaztuta egotea, parte hartzen duten antolakundeei begira errealistak eta garrantzitsuak diren alderdiei erreparatu. - Proposamenak berritzailea izan behar du eta EB mailan balio erantsia eskaini behar du. |
| <p>Proiektuaren eta haren ezarpenaren diseinuaren kalitatea (gehienez 40 puntu)</p> | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Lan-programa argia, osoa eta kalitatezkoa izatea, beharrezkoak diren faseak jasoz: prestakuntza, ezarpena, jarraipena, ebaluazioa eta zabalkundea. ▪ Proiektuaren helburuak, metodologia, jarduerak eta proposatutako aurrekontua elkarrekin bat etortzea. ▪ Proposatutako metodologiaren kalitatea eta bideragarritasuna. ▪ Proiektuan hainbat arlotako adituak egotea, hala nola kirol-politikak edo kirolaren praktika (entrenamendua, lehiaketak eta abar). ▪ Kudeaketa-akordioak egotea eta horien kalitatea (antolaketa, ardurak eta zeregin errealistak eta egoki esleituak). ▪ Kalitatearen kontrolerako neurriak egotea eta horien garrantzia, ziurtatzeko proiektua kalitatez, epearen barruan eta adostutako aurrekontuaz gauzatu dela. ▪ Proiektuko kostuen efizientzia, eta baliabideak jarduera bakoitzari zuzen esleitzea. |
| <p>Inpaktua eta zabalkundea (gehienez 30 puntu)</p> | <ul style="list-style-type: none"> ▪ Proiektuaren emaitzak ebaluatzeko neurrien kalitatea. ▪ Proiektuak izan dezakeen inpaktua: <ul style="list-style-type: none"> - parte hartzen duten pertsona eta antolakundeetan, proiektua gauzatu bitartean eta ondoren, - zuzenean parte hartzen duten pertsona eta antolakundeetatik kanpo, toki, eskualde, herrialde eta/edo Europa mailan. ▪ Zabalkunde-planaren kalitatea. ▪ Oihartzuna eta hedabideen estaldura ziurtatzeko neurrien kalitatea. |





Finantzaketarako hautagarria izan ahal izateko, gutxienerako puntuazioa 60 puntu izango da, eta atal bakoitzean gutxienez puntuen erdiak lortu beharko dira (adibidez, 15 puntu, proiektuaren garrantziari buruzko atalean).

Dirua itzuliko da, betiere, egindako gastuen arabera. Jarduera horiek hirugarrenen finantzaketa baliatu beharko dute; esaterako, enpresa pribatuena. Eskatzaileak kostu hautagarrien %20 jarri beharko du gutxienez.

3. OINARRI ENPIRIKOA DUTEN POLITIKEN SORRERA BULTZATZEA

Kirol-arloan, EBren balio erantsia lor daiteke programan sartuta dauden herrialdeen eta kirol-antolakundeen artean jardunbide egokiak hedatuz eta Europar lan-sareak sendotuz, sareetako herrialdetako kideek ezagutza berriak bereganatzeko aukera izan dezaten. Horretarako jarduerak ikasketen, konferentzien eta mintegien ingurukoak izango dira.

4. ELKARRIZKETA BAZKIDE GAILENEKIN

Elkarrizketa sustatzeko jarduera nagusiak urtero antolatzen den EBren Kirol Foroa eta Kirolaren Europako Astea dira; biek ala biek 300 parte-hartzaile inguru biltzen dituzte.



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza

PRESIDENCIA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak.
Delegación de Euskadi para la Unión Europea



27, Rue des Deux Églises
1000 Bruxelles

Tel.: +322 285 45 10 - Faxe: +322 285 45 55
bruselas@ej-gv.es
www.euskadi.net/europa

Tweekerkenstraat 27
1000 Brussel

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia
Euskadiren Europar Batasuneko Ordezkaritza

PRESIDENCIA

Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak.
Delegación de Euskadi para la Unión Europea



27, Rue des Deux Églises
1000 Bruxelles

Tel.: +322 285 45 10 - Faxe: +322 285 45 55
bruselas@ej-gv.es
www.euskadi.net/europa

Tweekerkenstraat 27
1000 Brussel